



"AUTOPISTA" TA ASKATASUNA

SANTIAGO AIZARNA

Luze-zabalero gogor eta grixantzeko toki batzutan larra eta belarra ateria zegon tartetik. Izan zezaken aiek denbora bateko bide batzuk izatea, naiz ta orain baztertuak eta ber-berak autsitako egokitasun ik-gabe agertu. ber-berak autsitako egokitasunik-gabe agertu.

A VERY PRIVATE LIFE.—Michael Frayn

Nai duanak nai duana esan dezala bañan nik beintzat ba dakit zertako egin izan zituzten «autopista» deritzan, bide zalapartotsu oiek.

Bai: gizona berari dagokion askatasuna ziur kentzeko.

Begira, bestela, zer gertatu zitzaion Hans Krüll izeneko gizon bateri. Badakizute bide oien antzeko pranko ba dirala Alemani aldean. Eta bide oiek egiten aritu ziran ainbeste gizonetako bat zan Hans Krüll. Denbora gogor eta kaxkar pranko bizitzeko jaiotako umea zala ezin ukatu. Gizon bigotedun aundinai batek Alemani lurra beste

iñungo lurrak baño gorago igo nai izan zuan. Ba-zirudin, arrastoa galdutako «diskoen» bat zeukala buruan, eta «über alles, über alles, über alles» besterik etzuala entzuten. Egi batek geiago balio du, eta gauzak argi agertu nai ba ditugu, au jende geienaren miña dala aitortu bearrean gaude, bañan, alare, gizon bigotedum arrek ekarri zitudan ez-bearrak beste iñoren bizkarreta bota leiken baño aundiagoak izan ziran. Eta bere denborako beste alemanitar asko bezela, Hans Krüll izeneko gizon au ere, nastaketa artan sartu zuten, eta aal zun guzia eginta ere, eziñ egin izan zuan askorik.

Hans Krüll'ek etzun izanuste, iñoiz ere, «autobahn'ak» egiten ari ziranean, ortarako egiten ari zirala. Zertarako au, askatasuna lur azaletik kentzeko zala igerrri zionean, egun asko, illabete asko, urte asko pasiak zitudan, eguna joan ta eguna etorri, izerdi ta patsa, bide zabal ta patxarosu aiek egiten. Noizik-beinka len bide zarrak izantako arrastuari begiratzan ziotenean, aguro eroitzen ziran oraingo oien bentajetan. Lenago, eskelari neketsu batzuen antzera, bideak beren musu edo besarkada erriitik-errira ematera urbiltzen ziran. Emen ats egiñ, aurrexiago ardo ttantta bat edan, beste atsaldi batean urte koloreko garagardo apartsua, arren azalean zijoazten gizonak bidearekin bat egiñak joaten ziran. Eta aien gañetik zijoaztenak bazekiten ongi aski nundik-nora zijoazten. Bañan oraingo «autobahn» oiek, etziran aiek bezelakoak. Laisterkari gazte eta azkar baten antza geiago zuten. Aietan sartzea, Kreta'ko Minotauro'ren leza-zulo zurrunbilloan sartzea bezela zan. Urrutian ikusten ziran uri, erri, mendi, ibai eta abar, iñoiz ikusi gabetakoak iruditzen zitzaioten. Nola bizi ote leike ain bazter ta ain urruti, aiñ ezagun ta aiñ ez-egagun, alderdi, baso, zelai, etxe, jendeekin?

Orduantxen ekin zion Hans Krüll'ek bere pentsakizunari. Laisterkari azkarrak ziranez, bide zabal aiek aguro zeramaten edozeiñeri toki batetik bestera, naiz ta itsuantzera eraman. Ontaz, denboraren ardatzak laburtuaz, denbora geiagoren jabe egitera lortzen zuten. Bañan itsumenezko munduta erori ez ote zan edo, kezka pranko sortu zitzaion buruan Hans Krüll'eri. Itsu munduak eginbear gogor eta zaillak agertzen ditu. Itsumundua «imperialista» zalakoan zegon aspalditikan, eta «autobahn'etik» sortzen ari zan beste «imperialismo» ontaz gogor kezkatu zen.

—Nora ote gijoaz, mutillak? —galdetu zion bere aldameneko batzueri.

—Nora...? Ez al dek ikusten nora edo zer...? —erantzun zion batek.

—Ez niken esanai ori, bañan, ez al zaituzte zueri gauz bera pasa? Lengo bide ortatik nijoanian, ba-nekiken, esate baterako, zer arrapatuko nuen metrotik-metrora. Erri-ttiki guztiak, baso-bideak, mendiak, ibai-ertzak, den-denak ezagutzen nizkin obeki baño obekiago. Orain berriz, ezer ez. Lenago, bidari ninjoalarik, Markus eta Berta'ren etxe bazterrean txolarte batean gelditzeko oitura artu nian. Eta baitare amakin bat aldiz gelditu, atsegiñez beterik. Garagardoaren apar zuriakin moko bustiez, an serbitzan dagozten neska gazteari amaika zirri egintako umea nauk. Eta orain berriz, ez garagardo ta ez ezer. Ez baso, ez mendi, ez ibai, ez uri, ez erri, ez gizon. «Autobahn» au bukatzen degun egun berian, beste «autobahn» batekin asiko gaituk. Ikus-

ten dituzute nolatan etortzen zaizkigun egunak: bat bes-teen ondotik, noski. Ba, modu ortan bertan etorriko dituk bideak: bat bestien ondotik. Eta, zer gertatuko ote digu «bideen denbora» bukatzen zaigunean?

—Zer esaten dek, motel? Zer dek «bideen denbora»?

—Bat dek, «bideen denbora»; bestea, «egiteena». Ez al dek orain arte sekulan aditu ori edo zer?

—Ez, nik beintzat sekulan ez.

—Adizak ba: «Bazter guziak bidez betetzen diranean azken juiziyoko eguna etziok urruti...»

—I beti orrelako jolasakin...

—Ez dit uste nerea denik eta ezta jolasa denik ere.

—Zeiñena ta zer ba...?

—Guretarrak ziur siniesten ditek ori. «Etxe bakoitza taberna biurtzen danean, eta leku guziak bidez betetzen dituztenian, erne mutillak, azken juiziyoko eguna etziok urruti ta...»

—Nundik atera dek esate ori?

—Nik eta guretarrak ongi aski ba-zekiegu nundik.

—Ba!, I ta zuetarrak beti... Ez aaltzenuten entzun gure Gidariaren azkeneko itzaldia...?

—Zeiñ, bigotedun gixatxar orrena...?

—Kontu emaiok e, ire bizia estimatzen badek...

—Bai, entzun nioken. Zer esanai dek orrekin...?

—«Autobahn» edo bide oietaz itzegin zian. Ez aal aiz gogoratzen?

—Bai, ala itzegin zian, egia dek. Joan bear degun to-kira lenago joateko izango ditugula bide oiek esan zian. Bañan gauz bat aaztu zioke. Etziguken esan nora goazen edo ta orrek gu nora eraman nai gaituan...

—Gidariak berak bai ba-daki nora joan nai duan, guk zertarako jakin bear diagu? —ots egin zion, aserre, bere lagunak.

* * *

Ez odola eta ez odol-ixurtzalleak, agertu gabeak ziran oraindik, Gero agertuko ziran itxuretan beintzat.

Ez odol eta ez odol-xurgatzailleak ere.

Urteak pasata, gudaren itzal beltzak ederki odoldu zitudan bazterrak.

Urteak pasata, odol-xurgatzaille azkar, trebe ta ausarta bat agertu zan «autopista» deritzan leku berexi ortan. Amakiñ bat neska gaztek, zoriontsu, utzi zuten bere bizia arren musu beroa artzen zuten bitartean.

Urteak pasata, gertaera berriak. Amaikak naiagoko zuten, noski, bide-berriak. «autopista» berriak, erekitzen jarraitzea. Eta denbora askoan, beintzat, ala joan ziran gauzak.

Egun batean, Alemani aldean Hans Krüll'ek bezela, Itali aldean Giuseppe Galofaro'k ere pentsakizunari ekin zion. Kamiyo bazterrean jarrita, Erroma'tik Napoles'era dijoan «Autostrada'ri» begira, bere Etiopi'ko denborak gogoratzen asi zan. Eguzki soil, bero, latz batek burutsik zegon gizon ura zigortzen ari zan bitartean, etzuan utzi izan nai, gogoratu gabe, bere erri maitearen izana, eta aiñ eta gutxiago onen etorkizuna. Etiopi aldean ibilli ondoren, ankamotz, besamotz, begi-bakar ikusten zuan bere gorpuzta.

Eta orain or zegon, burni-sarearen beste aldetik, begira ta begira, orru ta marru zijoazten berebillari...

—Auxen dek gure etorkizuna: laisterrago joan genezan, ankamotz biurtu zigutek; «bolanteari» indar geiagokin eutsi dezai-ogun, besomotzak; urrutira obekiago ikus dezagun, begi-bakarrak... Bitartean, zer ote dio Gidari jaunak?

* * *

Beti esan nuana askatasuna kentzeko bestelako etzutela balio «autopista`k» esaten nian, eta ara nun, gaur, emen, berebillitik zinzillika gorputza daukatela, zilipurdika eroria, au-sapaian lokatzaren guritasun nazkagarria sumatuz, beste modu batean mintzatu bearrean nagon.

Atzo goizean, etxetik irten da, autopistaren matel-ezur gogorretara joan niñuen. Goiza, eguzki ederra zeruan, aize-gozoa leiotik kantu-kantari biotza alaitsu sumatzen nuan bitartean, or etorri ziraken ez-bearra.

Nik ikusi nian sarea an zegoala eta zezenak zapi-gorriari ekintzen dion bezela, nik ere sare arreri ekintzeko asmoa artu nian.

Etzakit zer naukan gogoan. Orain dela urte batzuk, Herrera`ko ballaran berebill batean zijoazten batzueri aingeru biurtzea gogoratu zieteken. Orain dala berriro, Sábado`ren dei ezin-jakingarria entzun da, Clemente, Palmar`eko goztzai ospetsua, betiko, mundu illunpetara joan-uan. Etzakit zer dar-darrak emanda bañan beintzat sereari aurrez-aurre jotzeko asmoa artu nian...

Nik ba-zekiat alde ontatik beti arrai saretu batzuk besterik ez gerala. Orain, emen etzanta nagolarik, abesti ederrak entzutzen asia nauk. Gorputza arin samarra sumatzen diat eta ba-niok, neronek batere konturatu gabe altxako ez ote naizen eta sarean egin duten zulo ortan barrena ez ote naizen joango. Nolanai ta ere, nor edo nor onuntz eldu dala sumatzen dit. Eta askatasun aundi batek —ugalde aundi bat izango ba-litzake bezela—, artzen dik nere anima, egaka botatzen dik, eta beti bizi guzian gertatu zaiten bezela, or abiatzen nauk, nora ez dakitela, garbi iñora joan nai ez dutela, sare zuloan barrena.